

BALIABIDEAK

Hainbat baliabide fisiko beharko ditugu: ez dugu produkturik fabrikatuko beraz, ez dugu beharko produktu horiek fabrikatzeko fabrikarik. Behar duguna, bulego batzuk dira, eraikuntza baten pisu bat alokatuko genuke eta hor gure bulegoak ezarriko genituzke. Horrela bezeroek egindako deiak edo bidalitako gmail-ak erantzuteko gai izango ginateke. Hau da gure langileek lan egiteko gune bat beharko genuke. Horrez gain, gure webgunearen zerbitzariak gordetzeko gelak beharko ditugu, bi eraikin desberdinetan gordeko ditugu, badaezpada, nonbait arazo bat sortzen bada, zerbitzaria eta datu guztiak ez galtzeko. Gainera, biltegi bat erabiliko dugu, beste enpresen produktuak gorde ahal izateko, gure ideia, hasieran behintzat, pabiloi bakar batean produktuak gordetzea da. Ibilgailuei dagokionez, ibilgailu enpresa bat kontratatuko dugu gure produktuak banatzeko, hasieran behintzat beste enpresa batek egingo du banaketa, geroago ez dugu alde batera uzten gure kamioi propioak erabiltzea. Makina batzuk ere beharko ditugu: ordenagailuak, webgunea eguneratua izateko; garabiak, biltegietako produktuak lekuz aldatzeko edo kamioietara produktuak igotzeko, eta gure zerbitzu propioa izateko tresnak. Salmenta puntuak ez ditugu edukiko; izan ere, gure enpresaren salmentak Internetaren bidez izango dira; horregatik, gure sistema informatikoak mantentzeko zerbitzariak beharko ditugu, gure webgunearen produktuen deskontuak edota produktu berriak jartzeko. Banaketa sareari dagokionez, gure enpresak kamioietan banatuko ditu produktuak eta haiek bezeroen etxetara eramango dituzte.

Baliabide intelektualak beharrezkoak izango dira gure enpresan: gure enpresak markak salduko ditu. Izan ere, gure helburua gure webgunean beste enpresa txikien ondasunak eskaintzea da, baina gure markaren babespean. Horretarako, elkarrekin sortu beharko ditugu beste enprekin eta komisioen bitartez lortuko ditugu gure diru sarrerak. Jabegoa, egile-eskubidea eta bezeroen-data basea kontuan izango ditugu. Batetik, jabegoa produktu bakoitzarena izango da, hau da, gure hornitzaileena, beraiek baitira dirua irabaziko dutenak gure web-orrian beraien ondasunak saltzen. Bestetik, egile-eskubideei izugarrizko garrantzia emango diogu. Nahiz eta beste enpresek ekoiztutako produktua izan, gure webgunean bakarrik egotearen egile-eskubidea lortu nahi dugu elkarrekin bitartez. Hau da, gure enpresaren eskusibotasuna lortuz. Azkenik, bezeroen-data basea kontuan hartuko dugu, gure kontsumitzaileak nolakoak diren eta nola ireki dezakegun gure merkatua jakiteko.

Giza-baliabideak beharrezkoak izango dira gure enpresa gauzatzeko: Gure enpresak hainbat sektore izango ditu. Horietako bi bulegoetan kokatuko dira. Batean bezeroekin harremana edukiko duen jendea kokatuko da, bezeroek hainbat arazo baldin badituzte, beraiekin kontaktatuko dute, bai e-mailak bidaliz edota deituz. Beste sektorea, webgunea eguneratzeaz eta akatsik egon ez dadilaz arduratuko da, sektore horretarako informatikoak eta webguneak diseinatzen profesionalak beharko ditugu. Biltegietan lan egiten duen jendea ere beharko dugu, produktuak prestatzeko, biltegian kokatzeko, eskaerak kamioietan prestatzeko... horiek biltegian kokatuko dira eta handik egingo dute lan. Enpresaren

finantzak administratzeko eta dirua kontrolatzeko ere, pertsona bat gutxienez beharko dugu, enpresaren administrazioetan profesionala dena. Marketineko sektore bat ere beharko dugu, sektore horretan publizitatea non egin, nolakoa izango den publizitatea eta aberretan profesionalak diren pertsonak egongo dira, sektore garrantzitsua izango da, bezero gehienak horri esker lortuko baititugu. Garraio sektorea ere egongo da, zeinek produktuak etxeetara eramango dituzten eta produktuak etxeetan jarriko dituen. Horiek guztiak hala ere, beste enpresa batzuen bidez kontratatuko ditugu, hasieran gutxienez.

Hala ere, hasieran marketineko sektorea, biltegian lan egingo duten sektorea, bezeroekin harremanetan egongo den sektorea, webgunea aurrera eramango duen sektorea... beste enpresa baten bidez kontratatuko ditugu, ez dakigulako enpresa ongi aurrera eramango den ala ez eta arriskatuko ginatekeelako.

Finantza-baliabide batzuk ere beharko ditugu. Enpresa aurrera eramateko, dirua beharko dugu, baina dirua ez da metalikoa izango, dena bankuen bidez ordainduko dugu. Beraz, banku batean kontu bat ireki beharko dugu. Enpresa hasteko orduan ere, banku bati mailegu bat eskatu beharko diogu, biltegiak alokatzeko, soldatak ordaintzeko... Mailegu hori banku askori eskatuko diegu, haiek eramaten duten komisioa txikiagoa izateko, eta horrela guk diru gutxiago galtzeko.